

Euskal AEko industria-jarduerak % 2,1 egin zuen gora 2022ko abenduan


2022ko urte osoko hazkunde metatua % 5,7koa izan da

Euskal AEko industria-produkzioa 2022ko abenduan 2021eko hil berekoa baino % 2,1 handiagoa izan da, lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, Eustatek prestatutako datuen arabera. 2022ko urte osoaren balantzearen itxieran, industria-jardueraren igoera % 5,7koa izan da.

Abenduan, aurreko hilarekin, 2022ko azaroarekin, alderatuta, Euskal AEko industria-jarduerak % 0,4 egin du gora, urtaro-ondorio egokiak zuzenduta.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2022ko abenduko indizeak, ondasunen helmuga ekonomikoaren arabera, eta 2021eko abenduarekin alderatuta, % 5,0 egin du gora *Ekipo-ondasunetan*; haietan, motordun ibilgailuen fabrikazioa, lokomotorren eta trenbide-materialen eraikuntza eta eraikuntza aeronautikoa edo ontzigintza sartzen dira.

Kontsumo-ondasunek, bestalde, urte arteko portaera positiboa izan dute; % 6,5eko igoera izan dute sektorean, oro har, nagusiki *Kontsumo-ondasun iraunkorren* ekoizpenean % 8,8ko igoera izan delako; haietan sartzen da, besteak beste, altzarien

eta etxeko aparatuen fabrikazioa. *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* ekoizpenak % 6,0ko igoera izan du. Haietan honako jardura hauek sartzen dira: elikagaien prozesatua eta kontserbazioa, garbitasuneko eta higienarako produktuen fabrikazioa, farmaziako produktuak eta arropen jantzigintza.

Bitarteko ondasunen ekoizpenak urte arteko % 0,9ko beherakada izan du. Sektore horretan, honako jardura hauek sartzen dira, besteak beste: metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa.

Azkenik, *Energiak*, urte arteko terminoetan, % 1,9 egin du behera 2022ko abenduan. Sektore horretan energia elektrikoaren ekoizpena eta hornikuntza eta petrolio-fintzea sartzen dira.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Abendua 2022

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestacionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	2,1	5,7	0,4
Araba/Álava	-2,2	5,3	-2,7
Bizkaia	4,6	7,0	1,2
Gipuzkoa	2,1	4,6	1,3
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	6,5	4,5	2,3
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	8,8	-1,4	12,1
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	6,0	6,0	0,0
Ekipo-ondasunak	5,0	9,3	-0,4
Bitarteko ondasunak	-0,9	2,1	-2,1
Energia	-1,9	11,2	0,7

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtariletik behatutako azken hilera arte metatutako aldiaren (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2023ko Otsailaren 6a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziago batean, Euskal AEko industrian pisurik handiena duten sektoreen artean, 2022ko abenduan urte arteko hazkuntza handiena izan dutenak honako hauek izan dira: *Makinak eta ekipoa*, % 6,2 hazi da, *Materiala eta tresna elektrikoak*, % 3,3 eta *Garraio-materiala* % 3,0. Bestalde, jaitsi egin da ekoizpena honako sektore hauetan: *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* sektorean % 8,5 jaitsi da, eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* sektorean ekoizpenaren beherakada % 8,2koa izan da.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Abendua 2022

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	2.7
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-8.2
Kautxua eta plastikoak	-0.6
Metalurgia eta produktu metalikoak	1.2
Materiaia eta tresna elektrikoak	3.3
Makineria eta tresneria	6.2
Garraio-materiala	3.0
Energia elektriko, gasa eta lurruna	-8.5

(p)Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1)Euskal Aeiko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2023ko Otsailaren 6a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2022ko abenduan industria-produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Bizkaian eta Gipuzkoan, eta urte arteko hazkundeak % 4,6koa eta % 2,1ekoa izan dira, hurrenez hurren. Araban, berriz, industria-produkzioa % 2,2 jaitsi da urte arteko terminoetan.

2022ko URTE OSOKO BALANTZEA

2022ko hamabi hilabeteetan, industria-sektorean hazkunde metatua % 5,7koa izan da. Bilakaera positibo hori honako hauen portaera onaren ondorio izan da batez ere: *Energia* eta *Ekipo-ondasunak*, haietan urte osoan % 11,2ko eta % 9,3ko hazkunde metatuak izan dira. 2022an ekoizpena *Kontsumo-ondasun ez iraunkorretan* bakarrik jaitsi da, eta 2021. urtearekin alderatuta beherakada % 1,4koa izan da. *Kontsumo-ondasun iraunkorren* ekoizpenak % 6ko hazkundea izan du, eta *Kontsumo-ondasunen* indizeak, oro har, % 4,5eko igoera izan du hazkunde metatuan.

Lurraldeen arabera, hiruetan izan dituzte urteko tasa metatu positiboak. % 7,0koa Bizkaian, % 5,3koa Araban eta, azkenik, % 4,6koa Gipuzkoan.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazio-bilketan lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hil honetako indizea laginaren **% 89,32ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62